


Literatura

Telefono kaiolatua.
Harkaitz Cano
Alberdania, 1997



Aliziak baino fantasia gehiago

GAUZA SERIOA da, baina parrimurria eskapatzen zait niri: “1994. urtean argitaratu zuen bere lehen liburua: *Kea bebelainocean bezala* izeneko poema-bilduma. Urte hartan bertan argitaratu zuen *Pavlov-en txakurrak* saio hibridoa. 1995ean, *Radiografiak* ipuin-liburua eta *Beluna jazz* nobela argitaratu zituen. *Euskaldunon Egunkarian* ere irakur daitezke bere idazlanak. Gaur egun Zuzenbide ikasketak egiten ari da”. Eta ez 55 urtetik gorakoentzako programa batean: 1975ean jaioa, 22 urtetxo baino ez zituen Harkaitz Canok *Telefono kaiolatua* argitaratu zenean, 1997an, eta bibliografia hori jarri ahal izan zuenean liburu-hegalean. Eta auskalo nork pasatzen zizkion Zuzenbideko apunteak. Ez baita ulertzen bestela.

Esan nahi dut, Rimbaud euskaldunik bada, Cano izan daitekeela hautagai nagusia; bikaintasuna eta loria hogeitau urteen bueltan lortzen hasi zen gure idazlea. Denek ez zuten berehalakoan ikusi. Edo aitortu zioten bibliografia gorabeheratsua. Garai hartako kritika batek konparatu zituen *Telefono kaiolatua* eta *Beluna jazz* aurrekaria: “Liburua interesgarria bada ere, gustora irakurri badut ere, aitortu behar dut ez duela bete lehengo eleberria irakurtzean sortu zitzaidan ikusmina”. Milurte berriko hamabosgarren honetatik, iruditzen zait pareko zahartu direla biak: lehen irakurketa hartako zirrara berritzen dizutela, alegia, *Aldatz bebera itsasoan*, *Koltxoia* edota *Whisky & Nolotil* ipuinek.

Ipuinak eta poemak, baina iruditeria partekatzen dutenak: Heineken –begiak erabat zabalik zituela hil zen bati betazaletan txapak jartzeko–, Gillette –Jimi Hendrixek kopetan alderik alde ebakia egin eta koka xehetua zinta batean jarri ondoren zinta hori buruan lotzeko–, Camel –geltokiko orratz-zainaren alabaren ahoan kokatzeko–. Poetika moduko bat aurkezten dutenak, auskalo Canorena, gutxienez idazle berrientzat: “Urrutira joan zinen, urruntasunean zure idatzietarako ihesaren lasaitasuna aurkituko zenuelakoan. Iragana, hutsean emandako pauso bat zela-eta, ahaztu egin nahi zenuela. Ez zenuen oraindik ikasi etorkizuna iraganera heltzeko lasterbide bat baino ez dela”. Eta ipuin batean aurki daiteke liburuak uzten duen inpresioa: “Aliziak baino fantasia gehiago nuela buruan”. Horiek gutxi balira, bozgorailuetatik Beti Mugan taldearen musika ozena: moztu ilea ispilu atzean etzanda daude zure begiak.

Ezin erabat objektibo izan, beraz, liburu honekin. Diru propioarekin erositako lehenetakoa, memoria literarioan geratuko da portada lila-arrosa, ukigarria, Olariagaren hiru telefono poste harilkatuekin. Eta orduko irakurle hura, bertan betirako kaiolatua. ■

Aritz Galarra



ARABAKO BERTSOLARI TXAPELKETA 2015

1. FINALAURREKOA
URTARRILAK 25, igandea, 17:30ean
DULANTZI, Kultur etxean
Gai-emallea: Marta Ugarte Abasolo

Babesle nagusiak:

Oihane Perea Perez de Mendioala

Ruben Sanchez Bakakoa

Iker Pastor Rodriguez

Unai Bengoetxea Mujika

Ander Solozabal Kortabarría

Iratxe Andía Villanueva

www.bertsozale.eus/araba